



## **DBHn HEZKUNTZA ELEANITZA**

### **PROIEKTUAREN HELBURUAK**

- a) Klase ordutan irakasle-ikasle eta ikasle-ikasle artean dagokion hizkuntza sistematikoki erabiltzea.
- b) Ahozko eta idatzizko ulermena eta adierazpena hobetzea.
- c) Hizkuntzekiko atxikimendua lantzea.

### **IRAKASGAIAK**

#### a) Euskara

Erdal ingurune batean egonik, ahal diren irakasgai gehienak euskaraz emango dira.

#### b) Gaztelania

D ereduan irakasgaiak gazteleraz emateko curriculumean oinarritutakoak ez diren irakasgaietatik hautatu dira. B ereduan Matematika gazteleraz egingo dute.

#### c) Ingelesa

Irakasgaien hizkuntza ingelesa hautatzeko irizpide nagusiak hauek izan dira:

- 1) Irakasgaia ingelesez emateko institutuko irakasle plazadunak izatea.
- 2) Pisu handiko eduki kognitiborik gabea.
- 3) Ikasle guztiek proiektuan sartzeko aukera izatea, eskola inklusiboak eskatzen duen bezalaxe.

#### c) Frantsesa

2 orduko aukerako irakasgaia DBHko 1., 2. eta 3. mailatan eta 3 ordukoa 4. mailan.

#### c) Alemana

2 orduko aukerako irakasgaia DBHko 1., 2. eta 3. mailatan eta 3 ordukoa 4. mailan.

## **METODOLOGIA**

Hizkuntzetan oinarrizko metodoa komunikatiboa eta praktikoa izango da.

Talde lan kooperatiboari garrantzia emango zaio.

### **a) Ahozketasuna**

Ahozketasunak osagai erreflexu handia duenez, lehenengo egunetako lorratzak izango direnak zainduko ditugu eta aurrerantzean klase ordutan besteekin dagokion hizkuntza sistematikoki erabiltzen jarraitzea positiboki sarituko ditugu (animatu, alaitu, bultzatu...).

Hiru hizkuntzekiko atxikimendua sustatzeko egunerokotasunetik kanpora ere ekintza bereziak antolatuko dira: hiztun esanguratsuen bisita (idazlea, abeslaria, bertsolaria,...) eta abar.

Kalifikazioetan ahozketasunak gutxienez %10eko balioa izango du.

### **b) Irakurketa**

Irakurketa oinarrizko trebetasuna izanik neurriak jarriko dira ohikoa izan dezan irakurzaletasuna sustatzeko:

- 1) Liburuen mailegu eta trukaketa sistemak bultzatuko dira.
- 2) Hiru hizkuntzetan gutxienerako liburu kopuru bat irakurri beharko du ikasleak.
- 3) Gurasoek seme-alabek etxean egunero irakurtzeko erantzukizuna hartuko dute.

## KLASEKO HIZKUNTZA INGELESA

DBH 1. maila	<ul style="list-style-type: none"><li>• 4 ordu: Ingelesa</li><li>• 2 ordu: Gorputz Heziketa</li><li>• 1 ordu: <u>aukerakoa</u>: Balio Etikoak</li></ul>
DBH 2. maila	<ul style="list-style-type: none"><li>• 3 ordu: Ingelesa</li><li>• 2 ordu: Gorputz Heziketa</li><li>• 1 ordu: <u>aukerakoa</u>: Balio Etikoak</li></ul>
DBH 3. maila	<ul style="list-style-type: none"><li>• 3 ordu: Ingelesa</li><li>• 2 ordu: Plastika</li><li>• 2 ordu: <u>aukerakoa</u>: Ingelesez Ahozko Komunikazioa</li><li>• 1 ordu: <u>aukerakoa</u>: Balio Etikoak</li></ul>
DBH 4. maila	<ul style="list-style-type: none"><li>• 4 ordu: Ingelesa</li><li>• 1 ordu: <u>aukerakoa</u>: Balio Etikoak</li></ul> <p>Ingelesean bikain dabiltzanak beste arlo bat ere egin dezakete:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• 3 ordu: Geografia eta Historia</li></ul>